

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

LEZOKO UDALA

Teknikari Ekonomiko plaza lehiaketa-oposaketa irekiaz betetzeko onartutako oinarrien aldaketa.

Tokiko Gobernu Batzordeak (2023/06/27ko D23/0826 dekretuan alkateak emandako delegazioen baitan) 2025eko maiatzaren 21ean egin zuen bilkuran, besteak beste, erabaki hau hartu zuen:

Lehenengoa: Administrazio Orokorreko teknikari plaza bat eta Teknikari ekonomiko beste bat oposizio-lehiaketa ireki bidez betetzeko onartutako oinarrietan atzemandako akatsak zuzentzea. Oinarri horiek Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zituen 2025/01/28an, eta 2025/02/13ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ziren (29. zk.).

Zuzenketa honela egin da:

Oinarrien 8. atalean «Oposizioa», «2. Bigarren proba» azpiatalean, lehenengo paragrafoan:

— *Honako hau dioenean:*

«2. Bigarren proba, nahitaezkoa eta baztertzaila: ezagutza-proba. Oinarri hauen I. eranskinean erantsitako gai espezifikoet buruzko kasu praktikoa bat edo batzuk ebatzi beharko dira. Epaimahaiak erabakiko du zenbat kasu ebatziko diren, probak zenbat iraungo duen, zeintzuk izango diren zuzenketa irizpideak eta abar. Ariketaren hasieran emango da horren berri.»

— *Honela esan behar du:*

«2. Bigarren proba, nahitaezkoa eta baztertzaila: ezagutza-proba. Oinarri hauen I. eranskinean erantsitako gai orokor eta espezifikoet buruzko kasu praktikoa bat edo batzuk ebatzi beharko dira. Epaimahaiak erabakiko du zenbat kasu ebatziko diren, probak zenbat iraungo duen, zeintzuk izango diren zuzenketa irizpideak eta abar. Ariketaren hasieran emango da horren berri.»

Bigarrena: Erabaki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udalaren webgunean argitaratzea.

Lezo, 2025eko maiatzaren 21a.—Mikel Arruti Salaberria, alkatea. (3904)

AYUNTAMIENTO DE LEZO

Modificación de las bases aprobadas para la provisión por concurso-oposición libre de la plaza de Técnica/o Económica/o.

La Junta de Gobierno Local (dentro de las delegaciones conferidas por el alcalde en el decreto D23/0826 de 27/06/2023), en sesión celebrada el día 21 de marzo de 2025, adoptó, entre otros, el siguiente acuerdo:

Primero: Proceder a la corrección de los errores advertidos en las bases aprobadas para cubrir por concurso oposición libre una plaza de de Técnica/o de Administración General y otra de Técnica/o Económica/o, aprobadas por la Junta de Gobierno Local el 28/01/2025 y publicadas en BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 29 de fecha 13/02/2025.

Se procede a la corrección en los siguientes términos:

En el punto 8.º de las bases «La oposición», subsección «2. Segunda prueba», primer párrafo:

— *Donde dice:*

«2. Segunda prueba, de carácter obligatorio y eliminatorio, prueba de conocimientos que consistirá en resolver uno o varios supuestos prácticos en relación a lo comprendido en el Temario Específico de esta convocatoria, que se adjuntan en el anexo I. Queda a criterio del Tribunal la determinación del número de supuestos, duración de la prueba, los criterios de corrección, etc. que se hará público al comienzo del ejercicio.»

— *Debe decir:*

«2. Segunda prueba, de carácter obligatorio y eliminatorio, prueba de conocimientos que consistirá en resolver uno o varios supuestos prácticos en relación a lo comprendido en el Temario General y Específico de esta convocatoria, que se adjuntan en el anexo I. Queda a criterio del Tribunal la determinación del número de supuestos, duración de la prueba, los criterios de corrección, etc. que se hará público al comienzo del ejercicio.»

Segundo: Publicar este acuerdo en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y la web del Ayuntamiento.

Lezo, a 21 de mayo de 2025.—El alcalde, Mikel Arruti Salaberria. (3904)